


«Jariotasuna eta naturaltasuna galtzen da euskalkian egin ezean»

'Mendebaldeko Euskara XX. mende goieneran' jardunaldiak egin dira Bilbon

Mendebaldeko euskaren garrantziaz ohartarazteko eta horretaz jabetzeko topaketak egin dira asteburuan Bilbon. Bi egunez, euskara munduko hainbat adituk mendebaldeko hizkuntza aztertu dute. Topaketok bizkaierak ekar dezakeen ondarea bul-tzatzea eta zuzpertzzea izan dute helburu.

Aitziber Olabarrieta / Bilbo



120 lagun inguru bildu dira Mendebalde elkarteak antolatutako jardunaldietan.

XOUSE SIMAL

MENDEBALDEKO euskal kultur elkarteak antolatuta, bizkaieraren inguruko goi mailako 12 adituren gogoetak entzungai izan dira asteburuan. Mendebaldeko euskara XX. mende goieneran lelopean ostiraletik larunbata bitartean egin diren jardunaldietan lau gai jorratu dira: ahozko literatura eta irakaskuntza batetik, eta hedabide eta berbetatik eredurako saioak bestetik.

Atzoko saioan Juan Mari Irailagoitia, Maribi Unamuno eta Igone Etxebarria mendebaldeko euskarak hedabideetan duen tokiaz eta hartzen duen garrantziaz mintzatu ziren. Igone Etxebarria ETBko euskara arduradunak esan zuenez, telebistan euskararen zuzentasuna, egokitasuna eta hizkuntza maila hartzen dira kontuan. Haatik, programa edo saio bakoitzak hizkuntzari berezko mugak jartzeko dizkiola aitortu zuen.

Hizkuntza maila ere zaindu beharreko saila dela nabarmendu zuen Etxebarriak, «saioa ez-formala bada hizkuntzan be-tratamendu bera emon beharko litzakio, baina formala den neurrian hizkuntza jantzia, duina erabili eta aldi berean komunikazioari eragozpenik ez egitea lortu beharko da. Halakoetan oreka lortzea izaten da arazoa».

Telebistan bizkaiera lantzerakoan esatarien jarreraren dakusa Etxebarriak arazo larria, «bizkaierak berezko berbetan agertzen direnean, normalean, hobeto aitutan jakie. Esatariek bere erara egin behar dabe, beti ere batueraren ereduak kontutan hartute»; baina «ez da kapaza, edo eiten dau etxe-etxekoa edo ikasitako batua, ez dago tarterik. Momentu honetan badago pantailan horren adibideren bat. Nere ustez horrek egiten dotso bizkaierari kalte mesede baino gehiago».

«Herriko hizkera erabiltzeko ardura badago» • Maribi Unamuno irakasleak bizkaiera egiten den eremuan argitaratzen diren hainbat aldizkaritako hizkera aztertu zuen, «mendebaldeko euskarak bertoko hiztunen artean daben presentzia, onarpena eta balioaz hausnartzeko». Unamunok lekuan lekuko hizkera dabilten aldizkariek irakurlearengandik hurbil dauden testuak jasotzen dituztela esan zuen.

Aldizkariek hizkuntzei ematen dieten erabilera ere desberdina dela azaldu zuen. Erakunde ofizialetik datozenak, kasu, euskara eta erdara uztartzen dituzte, oro har. Kultur elkarte edo herri mugimenduetatik sortutako gehienak, aldiz, euskara hutsez aritzen direla gaineratu zuen.

Juan Mari Iraolagoitiak, Bizkaia Irratiko esatariak, mendebaldean bizkaieraz aritzen diren irratien jatorria eta nondik no-

rakoak azaldu zituen. Egun bi dira bizkaieraz jarduten dutenak: Bilbo Hiri Irratia, Zenbat Gara kultur elkartearen eskutik berriki sortua bata, eta 1990an sortutako Bizkaia Irratia bestea. Irailagoitiak gogoratu zuenez, Bizkaia Irratian «ondo jagondako bizkaiera batua edo literarioa erabili behar ebela erabaki zan 1973an. Bizkaiko euskaldunei hurbilagoko zerbitzua eskaintzea baitzan helburu nagusia».

Mendebalde kultur elkarteak kideak pozik agertu ziren jardunaldiok izan duten harrerarekin. Topaketetan 120 lagun inguru bildu dira; tartean aurrerago eza-gunak izan dira: Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuordea; Miren Azkarate, EHuko euskara errektorea; Federico Krutwig, euskaltzain osoa; Erramun Osa, Bizkaiko AEK-ko arduraduna.

Irakaskuntza eta bizkaiera

MENDEBALDE elkarteak kideek, topaketetan landutako gaien artean, barikuan irakaskuntza eta bizkaieraren arteko lotura aztertu zuten ponentziak nabarmendu dituzte, «partehartzaileek gustora hartu dabe gai barriak eta egungo egoeraren latzak diralako».

Jose Muruaga Bermeoko ikastolako zuzendaria, Juan Luis Goikoetxea institutuko irakaslea eta Kepa Altonaga unibertsitateko irakaslea izan ziren Biz-

kaiera irakaskuntzan saioa aurkeztu zutenek. Muruagak umeek eskolaurrea, lehen mailako hezkuntza eta derri gorrezko bigarren hezkuntza bitartean lekuko hizkera egitearen garrantzia azpimarratu zuen, «barioitzak berea polito eginez gero, ondo menperatu gero, errez egin daiteke baturako pausua».

Juan Luis Goikoetxeak, ildo beretik, «umeak etxetik dakarren lekuan lekuko

euskara Euskal Herriko ikastetxe guztietan landu beharko litzatekeela proposatu zuen. «Eskolaren betebeharrak etxeko euskara prestijiatzea eta zuzentzea da», esan zuen, «euskalkian egin ezean aurreratasuna galtzen baitu». Kepa Altonagak, berriz, teknolektoen eraketan eta zabal-kundean unibertsitateari partehartze zuzena egotzi bazion ere, «unibertsitateak erakunde gisa batuaren

eredua argi erakutsi» behar duela azpimarratu zuen.

Ahozko zein idatzizko hizkuntzan azentuak duen berebiziko garrantzia nabarmendu zuen Iñaki Gaminde irakasleak. Gamindek hizkuntzari leporatu zion hizkuntza ahozkatuko ez balitz bezala irakastea, «ume txikiak irakurtzen hasi orduko akabo euskal fonologia osoa. Espainolaren gramatika erregela guztiak erabilia irakurtzen dugu». X

Donostiako Udalak zezenplaza egiteko lurra utzi izana salatu du Eguzkik

■ Talde ekologistak enkartelada egin du udaletxearen aurrean

Efe / Donostia

EGUZKI talde ekologistak zezenplazaren aurkako enkartalada egin zuen atzo Donostiako udaletxe atarian. Enkarteladan bildu ziren 15 lagunek salatu nahi izan zuten Donostiako udalbatzak asteazkenean hartu zuen erabakia. Orduan Udalak erabaki zuen Ilunbe inguruko lurra uztea Nuevo Desarrollo izeneko enpresari, zezenplaza egin eta hurrengo 75 urteotan kudea dezala.

Ekologistek zezenplazaren aurkako oihuak egin zituzten. Protestak 15 minutu iraun zuen. Joseba Alvarez, HBko zinegotzia bertan izan zen. Eguzki talde ekologistako bozeramaile batek «lotsagarritzat» jo zuen Udalaren erabakia, eta prozesuan iruzur egiten ari direla iradoki zuen. X

Aldez aurretiko diagnostikoak garuneko tronbosia eragotz dezake

Vasco Press / Bilbo

JOSE LARRAKOETXEA Gurutzetako Ospitaleko Neurologia Zerbitzuko medikuak atzo Bilbon adierazi zuenez, gaixoak berak egindako aldez aurretiko diagnostikoaren bidez garuneko tronbosia eragotz daiteke. Medikuen hitzetan, ondorengoak dira gaixo horiek izan ohi dituzten sintomak: paralisia, ahoskeraren aldaketa, entzefalea handia, orekaren alterazioa, zorabioak eta ikusmenaren galera bat-batekoa.

Larrekoetxea doktoreak esan zuenez, sintoma horietako edozein sumatu bezain laster gaixoak gertatu duen ospitaleko larrialdietako zerbitzura hots egin behar du, «une horretan oraindik tronbosia konpon baitaiteke». Bilbon egin zen atzo gaixotasun horren aldez aurretiko diagnostikoari buruzko kongresua. Hartan, zenbait profesionalek hartu zuten parte. X

25.
Urteurrena



Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitateak bere 25. urteurreneko ekitaldi nagusia ospatuko du maiatzaren 24an goizeko 11etan Donibane Lohizuneko Maurice Ravel Auditoriumean; harrera-ekitaldian aurreneko urteko sustatzaileak omenduko dira.

Milaka lagun izan dira urte hauetan guztietan UEUko ikastaro eta ekitaldietara hurbildu direnak. Ezinezkoa egin zaigu guztioi banan-banan gure gonbitea luzatzea, eta bide hau aukeratu dugu guztioi dei egiteko bertara hurbil zaitezten.

Harremanetarako telefonoa: (94) 4217145
e-mail: ueu@eusnet.org